



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Nortasun krisia



Donostiako metroaren lanek zalantzak pilatzen jarraitzen dute. Irudian, Iñaki Arriola azalpenak ematen. Jon URBE | FOKU

Gorputzean ezin kabitua. Sentitu al duzu inoiz? Zeure burua ezin ezaguturik ibiltzea, beste edonorengandik gertuago zuegandik baino. Zure oroitzapenen harri txintzarretan azterka hasiko zara beharbada, haurtzaroaren eta nerabezaroaren arteko talka bortitzak hautsitako ispiluaren zatien bila.

Ederra zinela esaten zizuten, baina ez nahi bezain ederra. Azkarra zinela esaten zizuten; ez nahi bezain azkarra ordea. Ingurura begira jarri eta denak iruditzen zitzaizkizun zu baino lirainagoak, zu baino airosoagoak, zu baino indartsuagoak. Eta, halaxe, bizkarreko angelua gradu-ka-graduka makurtzen hasi zitzaizun, haize-lekuan zuhaitzak nola, bere baitara bildu nahi zintuen eskola ikusezin batean preso bazeunde bezala. Konplexuz bete- ta zeunden, baina, esan egia: nork kontatzen dizkio bere egiazko konplexuak beste inori? Bai, hitz egiten dugu lotsez, hitz egiten dugu ikareiz, hitz egiten dugu hitz egite- az... Hitza erraz egiten dugu, kea balitz bezala zabaltzen dugu geure buruaren inguruko kontakizun zintzo-uste- ko bat. Eta ke-laino trinkoaren geruza geroz eta sakona- go batean gordeko ditugu geure buruari kontatzeko ere

konplexuegiak diren konplexu horiek.

Gorde nahian dabile- nak bi gauza egin di- tzake inork aurkitze- rik nahiko ez duen hori ezkutatzeko. De- sagertzen ahalegindu daiteke, mututzen, be- giradei iskin egin, harik eta norbera ere gorde nahiko lukeen horretaz ahazten den arte. Edo, kontrakoa: nabarmen- du, ozen hitz egin, edo- nork ikusteko moduko lekuan jarri. Betiere gorde nahi den hori ez beste guztia erakutsiz. Beste norbait bilakatze- ko bideari ekin. Biga- rren hori aukeratu ze- nuen zuk.

Eta hala bururatu zi- tzaizun hainbesteko ukuilu-kiratsa suma-

tzen zenien baserritarrez janzteko egun bat jarri behar zenuela egutegian. Zu ere baserriz inguratuta egon arren.

Estropadak harrabotsez antolatzeari ekin zenion, arrantzaleak eta beren arrain-usain sarkorra inguruko portuetara bideratuta.

Zauritu, txikitu, bortxatu, hil eta erre zintuzten solda- duei inauterietan desafio egiten hasi zinen, harik eta ur- tarrilaren 20an zu ere armak hartu eta haien indar eta harrokeria imitatu nahian hasi zinen arte, lerro-lerro eta konpasari tinko atxikitako urratsekin.

Izan ere, hiri izateko txikiegi eta herri izateko handiegi zaren horrek, kosmopolitagoa izan nahiko baitzenuke; modernoagoa, distiratuagoa. «Bilboagoa», «Parisagoa», «Madrilagoa». Ukitzeko beharrean ikusteko egina; bizi- tzeko baino bisitatzeko egokiagoa. Ustez pauso sendoz abiatu zinen munduan barrena, zure ingurukoei lepotik gora begira.

Norbait harrotuta ikusten zutenean, azkar botatzen zuten sententzia gure aitona-amonek: «Lasai, honek ere aurki joko du itsasoa». Jo duzu zuk ere. Eta zure ziurtasu- naren azpiko hareatan koloka egin dizute oinek. •